

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko apirilaren 17a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lizarra** • Herriko historia Domingo Llauroren argazki erakusketan  
**Silvia Etxandi** • Mihisean gai erotikoak tartekatzea gustuko duen artista

• LUIS AZANZA



## Dirurik gabe elkartrukatu

Zerbitzuak eta objektuak dirurik gabe elkartrukatzeko Auzoke sarea sortu berri da Iruñean. Sareak merkatu sistema merkantilista alde batera utzi nahi du, elkartasuna eta elkartrukaketak bultzatuz






# Larraun • Inguru guztia diapositibatan bildurik

Plazaola Zaharraren geltokiko turismo etxerako prestakizunetan lehena da diaporama

**Inguruko mendiak, kultur ekitaldiak eta pertsona bereziak bilduko dituen diapositiba muntaia prestatzen ari dira Plazola Partzuergo Turistikoko kideak. Diaporama izango da datorren hilean zabalduko den turismo etxeak eskainiko duen zerbitzuetako bat.**



Proiektuak gauzatzen ari bada ere, Plazaolako trenbidearen ibilbide berdea martxan jartzeko arazoak ditu partzuergoak.

● ARTXIBOKOA

**A**RALARKO MENDIKATEA DA, agian, Larraun aldeak turistari eskaintzen dion erakargarritasunik handiena. Erakargarritasun hori bultzatu nahi du, behintzat, Plazaola Partzuergo Turistikoak. Baina horretaz gain, Araitz-Betelu, Larraun, Basaburua-Imotz eta Leitza aldera hurbiltzen denak aurkituko du gauza gehiagorik, mendiaz aparte: aspaldiko urteetako moduan lan egiten duten artisauek, urteetako tradizioa duten kultur ekitaldiak, pertsona bereziak... Horiek denak agertuko dira partzuergoak prestatu duen diapositiba muntaian. Horregatik, egun hauetan, argazkilari ugari inguruetan, inguruko muina negatiboetan bildu nahian.

Datorren hilean zabalduko da,

seguruenik, Plazaola trenbidea zenaren geltoki zaharra. Inguruko turismoarekin zerikusia duten zerbitzu guztiak bildu nahi dira eraikuntza eraberritu horretan. Areto berezi batean, esaterako, eskainiko da diaporama. Zortzi proiektore eta pantaila panoramiko bat beharko dira, besteak beste, muntaia horretaz gozatu ahal izateko. Baldintza berezi horiek direla eta, ia-ia areto horretan soilik eskainiko da muntaia. Kanpora ez dute askotan eramango. Lehendik, antzeko beste diaporama batzuk ere egin izan ditu Plazaolak, esaterako, herri kirolei buruzkoa, zein Leitza herri kirolaren erakustokian eskaintzen den.

Lan hori eman izan da beste zenbait herritan, eta oraindik ere ugariak omen dira horretan interesa azaldu duten kultur etxeak.

Diaporamaz aparte, artisauek lanak bilduko dituen dendatxo bat ere prestatu nahi da geltokian. Turismo bulegoa eta Plazaola Partzuergo Turistikoarena ere bertan izango dira.

Bertako turismoan pisurik gehien Aralarrek duen arren, alor hori ezin dute behar adina landu. Izan ere, oraindik behar bezala antolatu gabe baitago gerora parke naturala izango dena. Horregatik, partzuergoaren helburu nagusietako bat, Aralarra etortzen den jendea herrietara erama-

tea da, dibertsifikatzea, alegia. Aralarren ez bezala, Orgiko hariztian sartu dute eskua, eta emaitzak ikusgarriak izan omen dira, gero eta jende gehiago hurbiltzen baita bertaraino. Hain zuzen ere, lege eta burokraziarekin lotura duten tramiteak dira, sarritan, Plazaolak topatzen dituen oztoporik nagusiak. Esaterako, bide berdeen proiektua geldituta dago, egun, Madrildik beharrezko baimenak eta dirulaguntzak iristen ez direlako.

## Bi asmo berri aurrerantzean

Aurrerantzerako, bi asmo berezi dituzte partzuergoko kideek: alde batetik, datu bilduma bat osatzea, gerora turistaren eskakizun guztiak zentralizatu eta bateratu ahal izateko; eta bestetik, Interneten orrialde bat zabaltzea. Bien bitartean, orain arteko moduan jarraituko dute, landa-etxeak eta nekazal turismoa bultzatzen. Saio horretan, hain zuzen ere, bat egin dute, Nafarroako mendialdeko hiru partzuergoak: Pirinioak, Bertiz eta Plazaola. Hirurak batera joango dira datorren astean Bartzelonan egingo den feriara. Ahalegin horien emaitzak, dena den, nabariak izan dira Aste Santu honetan. Eguraldiaren eraginaren beldur baziren ere, kontent ageri dira Plazaolakoak, landa-etxeak bete baitira, eta hoteletan ere bezero dezentek izan omen dituzte. Gainera, hona iritsitako turistak, beste lekuetan ez bezala, bertan geratu dira.

→ Urko Aristi

## Altsasu

Seral Norteri hiru hilabetez berri dio Udalak zahar egoitzaren esleipena

AZKEN HIRU URTEOTAN SERAL Norteri azpikontratatu dio Altsasuko Udalak Aita Barandiaran zaharren egoitzaren kudeaketa. Apirilaren 1ean bukatu zen hiru urteko hitzarmen hori. Gerotik, Nafarroako Gobernuak Ongizate Sailaren eta Altsasuko Udalaren arteko desadostasunak sortu dira zaharren egoitzaren kudeaketaren inguruan. Aita Barandiaran egoitza ireki zenetik beti izan dira arazoak. Udalak zahar egoitzaren kudeaketa azpikontratatu zuen: egoitzaren patronatua desegin eta esleipena egitea erabaki zuten. Azpikontratazioa egin zenetik hiru urte igaro dira, eta arazo berri bat agertu da: Nafarroako Gobernuaren Ongizate Sailaren eta Udalaren arteko desadostasuna dela eta, inork ez daki zer nolako etorkizuna izanen duen Aita Barandiaran egoitzak. Oraingoz, kudeaketa hiru hilabetez luzatzea adostu dute.

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, azpikontratazioa araudiaren kontra doa. Beraz, Gobernuaren ustez, Udalak hasierako egitura hartu beharko luke, hau da, kudeaketa zuzena. Beste eskuan, berriz, Udala dago beste uste batekin. Urteko 18 milioi pezetako galera berea ez den ardura batean izatea handiegia dela argudiatu du.

→ Amaia Amilibia

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



**D**irudienez, Euskal Herriko egungo gazteria inoiz izan den prestatuena da, lanean hasi aitzinetik ikasketari urte aunitz eskaintzen dizkiogu behintzat. Ikastolatik aterita ikasketa ertainak burutu, unibertsitatara joan, master bat egin, ahal duenak bi, zenbait kurso eta horrela kurrikulum ezinhobea osatu. Zoritxarrez, ondotik datorrena ez da horren ona.

Nik bost urte eman ditut Psikologia ikasketak egiten, bost urte luze, eta ekainean lizentziatuko naizen esperantza daukat. Gazte pila bat dago nere egoera

## Eta gero, zer?

berean, ikasgarria bukatzeaz edo bukatuta dagoeneko, eta horietako aunitzek, gehienek, ez dute bilatutako emaitzik lortzen.

Bortziritan, hainbetez urte bakoitzaren prestakuntzari eskaini eta gero, lanean hasteko aukerarik badago, bai noski! Egunero, aste bukaerak barne, hamar ordu sartuz sukaldean, barra baten bertaldean edo subenir denda batean; edo zortea izanez gero, hilabeteko kontratuarekin inguruko fabrika batean. Ez badugu hogeita hamar urtetan oraindik gurasoen etxean bizi nahi, dagoenari eutsi behar zaio, eta

kontent zeri eutsi badagoelako! Baina nik diot: zertarako ikasten emandako denbora guztia? Egunero hogeita mahai zerbitzen lan egin behar duenari edo orduro bumizko laurogei pieza xulo batean sartu behar dituenari behar bada, psikologia ikasi izana ongi etor dakioko, baina erraidazue, zertarako balio dio medikuntza ikasi izana? Marisko gehiegi jateagatik bezeroren bati laxante bat eman beharko dio agian, edo piezak zulotxoetan sartzen gehiegi dibertitzen denari lasaigarri bat. Hori ere egia da.





ur dai  
aren  
mintzoa

Patxi Larraburu

**Libeloari buruz (I)**

Heriotzaren Izarran Mattias Varderekin egin nuen topo. Txan txan txan! txan ta txan! Garai batean Maixu Jedi bat izan zena egun mozorro beltz eta beldurgarri baten atzean izkutatzen zen eta bere arnasketa laguntzen zuten makiñen hotsa hezurretaraino izutu ninduen. Hala eta guztiz ere nahiko ongi disimulatu nuen: «Beraz, Lord Mugika, hemen gaude...». Bere eskuan Laser Ezpata piztu zen. Krainnnnng! «Bai, Luke -erantzun zidan-, nire aldera bihurtuko ziñela idatzita zegoen». «Bo, bo! hori gehiegi esatea dela ez al zaizu iruditzen?», esan nion nire Ezpata piztuz. Krainnnnng! «Bai -segitu zuden-, Indarra zurekin dago. Baina oso ahula zara, kalitate eskaxekoa, hutsaren hurrengoa... zatoz nire aldera... Indarraren Alde Ezinilunagora!». Eta bere ezpatarekin sekulako kolpea bota zidan. Alde batera egin nuen, nire ondoan ozonoaren erre usaia gailentzen zen instant berean, Fraunnnngtx! «Lord Vader, ez dut zurekin borrokatu nahi!». «Ja, ja, ja. Oso ahula zara Luke. Ni ere aspaldian zu bezala Indarraren Alde Onean ibiltzen nintzen, garai patetikoak, kalitate eskaxekoa (berriz!). Baina Enperadorearekin alderatu orduko txorakerietan nentzela ikusi nuen. Hau bai dela Indarra. Inperioren Hiriburutik galaxia guzietara hedatzen den eta aurre egin ezin zaion Indarra!». «Nire aldetik Errebelamenduarekin bat egiten dut» -erantzun nion-, «eta are gehiago...». «Iñozo, hori erabaki politiko bat besterik ez da», moztu zidan berak: «Patetikoak, kalitate eskaxekoa (tematia gero!), horrekin ez zoaz iñora. Gauza bat esango dizut, Luke: zure aita naiz». Reyoda! hori ez nuen espero! Beraz, nire barnetik Alde Ilunagora pasatzeko agintzen zidan sen hark hor zuen bere arrazoia! Nire benetako aita naturala Alde Ilunean zegoen eta nik erabaki politiko lotsamangarri batzuegatik itsu itsuan borrokatzen!

Etsita bere argudioak onak zirela aitortu behar nuenean C3POK esandako gauza batetaz oroitu nintzen: «Jauna, galaxian darabilzkiten 7489 hizkuntza menperatzen ditut eta, benetan, hizkuntza guzti hoietan sortzen dituzten literatur lanak kaka hutsa dira %98an. Inperiokoak barne».

— Kontua kalitatearena bazen hura iñon ere ez zegoela nabariegia zen. Laser ezpata bi eskuakin hartu eta aurrera pauso bat eman nuen.....

To be continued. ●

# Lizarra • Herriko historia antzinako argazkietan

Argaki zaharren erakusketa ikusteko aukera dago Fray Diego Kultur Etxean

**Ikusi ezin daitezkeen txokoak, desagertzean dauden bazterrak, jadanik ehortziak dauden pertsonak eta erabat itxuraldatuak dauden karrikak ikusi daitezke Fray Diego Kultur Etxean hilaren 30era arte egonen den argazki zaharren erakusketan.**



Domingo Llauro bere argazkien parean.  
● KRISTINA BERASAIN

**G**ARAI BATEKO PARAJE ARRUNT bat jaso eta urteak pasa ahala ustezko leku hori, paraje amoltsu batean bilakatzen da. Horixe da argazkiaren xarma. Eta horregatik urtetik urtera ehundaka lizartar hurbiltzen dira 1988. urtetik antolatzen den erakusketa honetara. Aurreneko urte horretan argazkilaritzara zaletuak ziren hainbat lagunek prestatu zuten erakusketa. Bertzeak bertze, horretan aritu ziren: Gabino Sanz eta Domingo Llauro. Akenak, lehenengo erakusketak izan zuten arrakasta ikusita, ideiarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Geroztik, hamar urte joan dira eta urtetik urtera errepikatzen da erakusketa.

Domingo Llauro bera ardura-tzen da urtetik urtera argazkiak jasotzeaz. Berak egindakoak dira hainbat argazki eta besteak herri-tarrei eskatutakoak. Horrela, erakusketa ikustera hurbiltzen denak badu aukera etxean duen argazki zaharraz gogoratzeke. Horrela, erakusketakoak ez ezik, bereak ere garrantzia duela ohartuko da eta Laurori haren berri emanen dio. Elkarrizketan etxean duen argazkia erakusketan agertzeko aukeraz mintzatu-ko dira eta historikoki interesa badu, Fray Diegoko paretetan es-kegiko da daotren urtean.

Almudi Kultur Elkartek anto- latzen du erakusketa Domingo Llauroekin batera. Negatiboak bildu ondoren, argazkiak handitu eta positiboak Almudiren eskue- tara pasatzen dira. Elkartek, ja- danik, garai bateko herri islatzen duten 1.200 argazki-baino gehia- go ditu bilduak eta gordeak.

**Urte askotako lana**

Almudi Kultur Elkartean lana garrantzitsua den arren, ekime- naren aita Domingo Llauro da. 68 urteko lizartarra, argazkilaritzan gazterik hasi zen. «1953. urtean, osaba batek, Kodak argazki

makina utzi zidan. Hauspo baten bidez funtzionatzen zuen. Beranduxeago Voigt-lander izeneko argazki makina erosi nuen, eta harekin, postatrukez, argazkilaritza ikastaro bat egin nuen» gogoratu du. 1957an Lizarrako Udalak antolatu zuen aurreneko argazki lehiaketan ere parte hartu zuen. Horrela ikasi zituen arte horren nondik-norakoak. Baina, dena den, bizi izan den urteotan guztiotan at- era dituen hainbat argazki izan dira lizartarraren benetako eskola. Egun 23.000 argazki baino gehiago ditu Domingo Lau- rok bere etxean. «Garai har- tan horrelako asmorik ez banuen ere, egun argazkiak gau- zak alderatzeko eta hiriaren bila- kaera erakusteko balio dute» gehitu du.

Erakusketa apirilaren 30ra arte egonen da zabalik Fray Diego Kultur Etxean, ohiko odutegian. Urtero legez, jendea erruz hurbil- tzen da antzinako argazkiak ikus- teko helburuarekin. Marivi Ott, kultur etxeko arduradunaren esanetan, erakusketa kultur gune horretan egiten direnen artean jendetsuena da. «Lizarra- ko jendearen artean grina pizten du erakusketak. Izan ere, herrita- rrek oso gogoko dute joandako garai bateko gertakizunak gogora ekartzea» nabarmendu du.

→ Kristina Berasain



**herri aldizkariak**

Edurne Elizondo

## Iparraldea Urnietan

**Herria** astekariko *Herria eta kultura* izenbu- ruko gehigarriak, hilaren 29an Urnietan os- patuko duten ekitaldi baten berri dakar az- ken zenbakian: «Kultura baten bizkortasuna arte mailan sortzen diren ikusgarri berri eta desberdinek egiten dute. Sorkuntza baitez- padakoa bada, hedapena ere hura bezain be- harrezkoa da, eta aitortu behar dugu alde horretarik badugula anitz egiteko, Euskal Herrian bezala, kanpora buruz ere. Euskal Kultur Erakundeak, bere aldetik, indar bat eginen du ikusgarri berrien hobeki ezagutarazteko, eta apirilaren 29an ekintza bat antolatuko du Hego Euskal Herrian. Sa-

robe teatroaren zuzendaritzarekin partaide- tzan, Donostia hiriaren ondoan dagoen Ur- nieta herrian, hemengo hiru konpañien la- nak, hango hedatzaile profesional eta herrie- tako euskal programatzailei erakutsiak izan- nen zaizkie. Lehen esperientzia horretan par- te hartuko dutenak dira: Chimeres teatro konpainia *Haurra xutik* obrarekin, Ekarle dantza garaikide konpainia *Mendiko zigantea* ikusgarriarekin eta Txakun musika taldea». Chimeres antzerki taldeko kide Txomin Heguyk hartzen du hitza **Herria** astekariko artikuluan: «Obra hau aterai zuten Chimeres taldeak duela bi urte frentsesez. Xoraturik

utzi ninduen eta han berean deliberatu nuen gisa batera edo bestera euskaratuko nuela eta taula gainean emanen. Gauzak egin dira uste baino fiteago». Ekarle eta Txakun taldekoak ere mintzo dira. «Hauxe dugu balet bat, ipuin freskoa eta lasaiki dantzatua. Bost urtetarik eta ha- mar artinoko haurrek dute bete-betean pre- zatuko», dio Ekarleko Mizel Theretek. Txa- kuneko Paxkal Indok, berriz, honela dio: «Maite dugu denetaz eta gauza anitzez trufa- tzea; nik uste ez badugu maturitaterik gutaz trufatzeko, ez duela balio batailatzea, gure nortasunaren agertzea».



# Hartu eta eman sosik gabe

Zerbitzuak eta gauzak trukatzeko sarea  
sortu berri da Iruñean

Auzoke taldea sortu berri da Iruñean, dirurik gabe zerbitzuak eta objektuak trukatzeko sarea. Helburua, merkatu sistema merkantilista alde batera utziaz, elkartasuna eta trukea bultzatzea. Besterik gabe, nahikoa da hartu eta emateko gogoia izatea.



Koldo Garcia, Begoña Gomez eta Antonia Montagud, Auzoke sareko partaideak. ● LUIS AZANZA

**M**ASAJEAK, INGLESEZKO EDO EUSKARAZKO KLASEAK, igeltserotza edo bulegari lanak,

umeak zaindu, gozogintza edo jostunaren konponketa zerbitzuak doan jasotzeko aukera eskaintzen du, beste gauza batzuen artean. Nafarroako hiriburuan sortu berri den zerbitzuak eta objektuak trukatzeko Auzoke sareak. Sortu berriak diren arren, jadanik berrogeita hamar lagun inguruk osatzen dute Auzoke elkartrukaketarako sarea. Koldo Garcia, Begoña Gomez eta Antonia Montagud taldeko partaideak dira eta sarera hurbiltzen denak, besterik gabe, egiten dakiena eskaintzen duela azpimarratu dute. «Norberaren alde sortzailea bultzatzen du. Margotu egin dezakezu, sukaldean ari, igeltsero lanak egin, denak du lekua hemen. Askotan galdetu diegu geure buruari zer dugun eskaintzeko eta honek bakoitzak ustez gorderik dituen ahalmenak aurkitzeko balio du dio Koldok. Nolanahi ere, Auzoke, auzoan eta truke hitzen loturaren atzean, gizarte harremanak eta lanaren balioa ulertzeko beste modu bat gordetzen da.



Begoña Gomez, masajista. Luis Azanza ● LUIS AZANZA

## Elkartasuna eta hartu-emanak bultzatu

Horrelako ekimenak beste toki batzuetan gauzatu dira. Iruñean duela bi hilabete hasi ziren Auzoke sarea eratzeke bilerak egiten banaka zerbitzu

elkartrukaketak egiten zituzten lagun batzuk. Zabaldi Elkartasunaren etxean egindako bilerekin proiektua mamtzen hasi eta lehen fruituak ematen hasi da. Jadanik berrogeita hamar kidek osatzen dute sarea eta harriduta daude hain denbora laburrean izan duen arrakastarekin. Kontsumoaren eta diruaren gurrupil zoroan sartuta dagoen gizartearen beste balore batzuekin funtzionatzeko modua da Auzoke sarea. Helburua ez da bakarrik zerbitzuak mugitzea. Aldiz, norberaren sortzeko ahalmena azaleratzeko eta harremanak bultzatzeko aukera eskaintzen du. «Ez du gaur egungo gizartearen duen ikuspegi merkantilista jarraitzen. Hemen helburua ez da merkatal onura ateratzea, elkartasuna bultzatu eta elkarren artean partekatzea baizik. Merkataritza harremanak ezartzeko beste modu bat da eta taldearengatik momentuan zer den egiteko gai. Bakoitzak egiten dakiena ematen du» azpimarratu du Koldok.

Merkatal hartu-emanak ez ezik, jendea bergizarteratzeko eta baliagarria dela ikus-taratzeko beste modu bat da ere. Hemen hasi besterik ez badira egin ere, beste herrialde batzuetan langabetuak eta gizarteak zokoratutak zituen hainbat lagun bergizarteratzeko balio izan du. «Kontsumo gizarteak bazterrean utzi du hainbat. Elkartrukaketa honek besteekin komunikatzen hasteko eta zoko horretatik ateratzeko aukera eskaintzen dizu. Pentsatzen eta sortzen laguntzen dizulako. Ez da terapia talde bat

## Zarauzkoan bidea eginez

Truke sareak ez dira asmakizun berria. Iruñekoak jaino bada ere, Zarautzen badabil bat duela urte bat. Eduardo Troncoso, Euskal Herrirako eta Espainiarako Truke Elkartearen Sare Orokorreko kontseilariak jarri zuen martxan. Argentinarra, duela hamazazpi urte Euskal Herrian bizi da eta Iruñekoak lagun izan du euren proiektua gauzatzeko garaian. Troncosok gogoratu duenez, Truke Elkartearen Sare Orokorra 1995eko maiatzaren lehen zutuen Buenos Aireseko probintzian lau gazte ekologistak. Carlos de Egun Argentinan bakarrik 100.000 bazkide baino gehiago dira. Ekimena beste herri batzuetara zabaldu da: Bolivia, Uruguay, Brasil, Txilera zabaldu da eta Troncosoren bidez Euskal Herrira eta Espainiara. Egun, interneten bidez Europako beste herrialde batzuetara ere irekitzen ari da. Argentinako baino sare zaharragoak baldin badaude ere, Argentinako «bakarra eta ezberdina» dela dio Troncosok. «Bakarra da lortu duen elkartrukaketa mailagatik. Argentinan urte honetan hilerio 1.300 milioi pezetako (52 milioi libera) trukaketa lortu zen». Aurretik zeuden mugimenduek ez dute horrelakorik lortu.

Gainera, gimendu homogeneo bat gertatu du sareak. «Jendeak denaren kontzientzia da du, ez doa denbora-pasalaraz ekonomikoak moldatzen, aurrezki dezake, murriz dezake guztioak duguriko kurrikuluma eta gure lehiatutakoak dioena baino gehiago frogatu» dio argentinarrak. Zarautsetan lagun bildu zinen eta 40 inguru dira. Hasieran izan zen erdi-mailako jendea berrabiltzatu zen taldera eta orain hainbat daudenak hasi zale gertatuak, beste era batera gertatu lortu ezinaz diren zerbitzuetako aukera emateaz gure hori baino funtzio garrantzirik Troncosoren ustez. «Sarearen kontrako aurpegia da zuzendua dago baina berrabiltzatuak, lana izan bai berrabiltzatuak emateaz gure hori baino funtzio garrantzirik Troncosoren ustez. Denboraz gero Zarauzko taldea zabaldu da. Ildo horretan, sarearen mugimendua tokian tokikoak izan da irizti dio

baina ikuspegi orokor batean bilduz. «Gure planteamendua orokorra da. Tokian tokiko esperientziak osotasun baten parte dira. Beharrezkoak dira talde txiki asko, eta ez gutxi eta handiak. Dezentralizazioa ezinbestekoa da, sistema horizontala da, ez dago patrioirik. Dagoen gauza bakarra da funtzio bakoitza beteko duen arduraduna» zehaztu du Troncosok. Euskal Herriko eta Espainiako sarearen arduradunaren aburuz. Bazterketa sozialaren arazoa ezin du sistema formalak moldatu. «Badakigu merkatu bat eratzen ari garela. Jendeak bizi kalitatea lortu du diru beharrik gabe, langabetuek bergizarteratu dira. Oso mugimendu garrantzitsua dugu eskuartearen. Beharrik gabe sistema formalak eta gu ulertzera». Ohartu dira, Troncosoren ustean, egiten duten trukea «bergizarteratzeko bidea dela. Ez goaz inoren aurka, ez dugu kritikatzeko erasotzen. Solilik sistema osagarri bat gara eta behar gaituzte sistema formalak moldatu ezin duena egiteko».



baina aurrera ateratzeko modu bat da» gehitu du Begoñak.

Lan guztiak dira baliagarriak sarean eta bakoitzak duena eskaintzen du. Hemen egiten. «Hemen guztiok irabazten dugu, zure irabaztea eta zoriontsu izan eta nik irabaztea eta zoriontsu izan da helburua» gaineratu du Antoniak.

### Konfiantzan oinarritua

Sarea hartu eta emateko prest dagoen edonori zabalik dago. Baina gauza guztiak bezala, baditu gutxiengo funtzionamendu arau batzuk. Auzoke sarea ez da solilik lagunetik lagunera egiten den elkartrukaketa baizik eta laguna eta taldearen artekoa ere. Horrela zerbitzu eta produktu trukaketa askoz zabalagoa eta aberatsagoa da. Taldeak

moneta proioa sortu du, auzo izenekoa. Auzo bakoitzak 100 pezetako balioa du (lau libera). Gauzak horrela, sarean sartzeko nahikoa da gordailuan jartzea 2.000-3.000 pezetako balio duten gaitzen ez diren oinarritzko produktuak eta 500 pezetako gordailua. Trukean sareak 50 auzo ematen dizkizu norbaitek beste lan batekin zerbitzu bat itzuli ezin duenerako nolabait ordaindu ahal izateko. Zerbitzuen eta objektuen trukaketa egiteaz gain, moneta erabiltzeko sistema merkantilista jarraitu ez baizik zerbitzua azkartu eta aberastu egiten duela uste dute. «Ez duzu batekin bakarrik elkartrukea egiten. Zuk gordailuan ematen duzuna beste norbaiti ordaintzen diot moneteren bidez. Auzoak izateak, gainera, aukera ematen du bestearen bizkar zabilazalaren ustea uxatzeko edo mesede bat zor dizunaren ustea kentzeko» azaldu du Koldok. Era berean, elkartrukatzeko diren zerbitzuen balioak zehazterako ez dago arau finkorik. Dena den gutxiengo eta gehiengo bat ezarri dira gizartearen egiten duzun lanaren arabera alde hain handiak gerta ez daitezen. Zerbitzuek 10-30 auzoen aldea izan behar dute, hau da, gomendatzen da lan batek bestearen balioaren hirukotza ez gainditzea. «Salatu gara gizartearen dagoen bestea baino gehiago izateko pentsakera lehiakorra eta merkantilista aldatzen. Beste giro bat sortu nahi dugu. Batzuk besteekin lagundutzeak gaude. Adibidez, nik elektrizista bat behar badut masajearekin trukatu du» nabaritu du Begoñak. Lanaren balorazioa nola egin izan da eztabaida gehien sortu gaia. Bilerak izan dituzte hori neurtzeko eta zehazteko. Dena den, bien arteko adostasunak eta konfiantzak du lehentasuna. «Oso garrantzitsua da konfiantza. Arauak ditugu baina aldatu daitezkenak. Bien arteko adostasuna eta lanaren kalitatea zehazteak du lehentasuna. Hori denborarekin moldatuko da eta trukeak eginez». Hori guztia aintzat hartuz, sarearekin harremanetan jartzeko modurik aproposa ahoz ahoko harremanak direla azpimarratu nahi izan dute, modu horretan bakarrik ziurtatu dezaketeelako trukatzeko den zerbitzuaren kalitatea. Beraz, egoitzarik ez duten bitartean, Auzoken sartzeko modurik aproposena adiskide baten gomendioz egindakoa da. Dena den, sarean sartzeko aukera ez da ezagun bidez bakarrik egiten. Auzokek feriak egiten ditu aldika beren funtzionamendua eta produktuak saltzeko. Aurreneko Iruñeko Gaztetxean egin zuten eta gaur egiten dute bigarren Arantzadi-ko Itzulia arratsaldeko 18:30etatik aitzina, beti ere, eguraldiak laguntzen badie. Feriak sarean alde oso garrantzitsua dira sarekideen arteko harremanak bultzatzen

Taldeak bere moneta sortu du, auzo izenekoa. Auzo bakoitzak 100 pezetako balioa du (lau libera).

laguntzen duelako eta, aldi berean, hara hurbiltzen denak euren berri jaso dezakelako. Bertan bigarren eskuo gauzak eta taldean daudenak egindako produktuak saltzen dituzte. «Helbura da mugimendu bat sortzea da. Horrek mugimendu bat sortzen du zure bizitzan zure lanbidez aparte. Ez dugu zure hartu-emanen %100 izan beharrik baina bai zure bizitzaren zati bat gaineratu du pozik Antoniak.

Behin oinarriak ezarrita, taldea ziurtatu nahi dute. Iruñean beste esperientzia batzuetan baino, Zauzko kasu, mugitzen ari dira eta gauzak tentuz egin nahi dituzte.

«50 lagun gaude eta ez dugu eskuetatik alde egitea nahi. Zabalik gaude baina oinarriak jarri nahi ditugu. Eraikuntza bat bezala egin behar da, oinarri sendoekin».

→ Irene Arrizurieta



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Mogelen aurrekoei buruz hitz labur bi: Milagroko lokia

Bizkaieraz eginiko literatura klasikoaren zuztar nagusiak izan ziren hiru Mogeldarrak, hots, Juan Antonio, Juan Jose eta Bizenta, nafar erroak zituen, Erribera aldeko Milagro hirian hain zuzen ere



**D**iru izan dira geure euskal literaturaren historian, batzutan llabur murrizta eta hutsala, besteetan aitzitik zabal ordoki eta ezagunai, lekukotasun hatzak utzi dizkiguten Mogel izeneko idazleak: Juan Antonio, Juan Jose eta Bizenta osaba-lobak. *Peru Abarka*-ren egilea, Juan Antonio Mogel Urkiza (1745-1804), sortzez eibartarra, izatez markinarra baina, eta Xemeingo erretorea zena, bizkaierazko literaturaren zuztarri lehenengotakotzat jo liteke aski lasai, nahiz hasiera batean, berauk gipuzkera hobetsi zuen gutxiz gehien bere ekoizpena haizara-tzeko: «Nik ikusi banen bizkaitarretan euskerearen zaletasun kipuzetan nekusana, enintzan ain esker dongakoa izango, zéin da itsiko nituan barurik neure bizkaitarrak». Mogel Elgezabal anai-arreba, Juan Jose (1781-1849) eta Bizenta (1782-1854), Deban eta Azkoitian hurrenez hurren sortu baziren ere, Juan Antonio osabak hezi zituen Markinaldean, eta bizkaieraz osotu zituzten euren eliz lanak eta alegiak. Hau guztia kontutan harturik baina, eta edozeinek aisa pentsa lezakeenari aitz, Nafarroan du jatorria Mogel abizenak, Erribera aldeko Milagro hirian hain zuzen ere.

Idazleena baino lehen, sendagileen familia izan zen Mogeldarra. Juan Antoniok beraitona zuen Andres Mogel Cornago milagroarra, Kalagorri aldeko Ruescan zirujau aritu zen, eta aitona zen Domingo Mogel Muñozek, Ruescako semea izan arren Milagroko auzakide izateari zaputz egin ez zionak, Agurainen ihardun zuen. Aitatxi hau izan zen Markinara joan zena, 1724. urterako gutxienez hango errejidorearena agertzen zitzaigula. Juan Antonioren aitak, Markinan jaio Juan Ignazio Mogel Pérez de Almazán zeritzanak, bere aurrekoei urratsel jarraikiz,



mediku ikasketak ere egin zituen: Iratzen eta Madrilén. Lehenbiziz Zaragozan arituta, 1750. erako Deban genuen osagile tituludun. Orduan aprobetxatu zuen onduriko lan bat mediku-lehiaketa batera aurkezteko, bigarren saria irabaziz: *¿Porqué siendo el regular domicilio de las lombrices el canal intestinal produce picazón en las narices?*

Juan Antonioren anai txikierak, aitaren izenkidea zenak, hots, medikuarena ere aukeratu zuen, eta sorterrian berean egin ahal izan zuen bere lana, Deban alegia, baita Azkoitian eta Soraluzen ere. Aita eta semea, biak, Adiskideen Batzarreko medikuen artean onartuak izan ziren 1773. ean, eta hantxe aurkeztu zuten zenbait lan, esate baterako, aitaren *Observaciones médico prácticas de la verbena con el método de usarla*: «En este país de Bizcaya donde escribo le dan el nombre de sugue-bedarra, asegurándome caseros de su virtud muy especial contra las mordeduras de culebra», *Reflexiones físico-médicas sobre la timpanitis*, edota *Aviso a la R.S.B.A.P. de un moderno descubrimiento en Vizcaya en gran beneficio de la agricultura sin perjuicio de cosechas regulares ni dispendio particular alguno*, 'artacea' zeritzan arto motaren berri emateko. Juan Ignazio semeak, berriz, 1773. ean Zaragozako unibertsitatean anatomiazko katedradunaren eta


Adiskideen Batzarreko irakasle baten zuzendaritzapean, latinez tajutu doktorego tesia aurkeztu zuen, *Conclusiones anatomico-médicas*, inokulazioari buruzkoa.

Juan Antonioren atxek gatazka oraingoan. 1774-1778. urteetan, Markin-Etxebarriko arimazain ihardun zuen. Bulta hartan arazoak izan zituen inkisizioarekin,

Marina Garate neskarekin zuen gidaritza izpirituala zela eta, Herrian hamaika marrikuku eta ipuinondo zabaldu ziren gure apezka neskazulo linburdikaria zela eta ez zela, eta horrek arazoak erakarri zituzkion. Villasantek berak, Mogel honen joera teologikoei, jarra zaharretik hurbilegi zeudekeela zeritzen: «Aitortu behar da Mogelego azalpen honetan erakusten duen kristautasunaren irudia aski hitza eta hertsia dela». Horrela bada, inkisizioak 1779.eko abuztuaren 30an atera zuen epaian honela ziotsan: «Sea el reo gravemente reprehendido y conminado sobre su iluso modo de proceder en la dirección de dicha Marina, vana y perjudicial credulidad, privado perpetuamente de dirigir espiritualmente hombres y mujeres, de responder a consultas de espíritu de palabra o por escrito; de tratar del mismo modo de semejantes visiones, revelaciones y apariciones». Fiskalak gartzela galdu bazion ere, zigorra Milagron leundu zuen non 1779. ean denboraldi goxo eta lasaia eman zuen, sendiaren etxean, euskaraz idazteko profitu zuena. Kontua da halako batean Markinara bueltatu zela baimenik gabe, eta inkisizioak predikatze baimena oso ro kendu zion. Horregatik, 1783. ean Tolosan Kardaberraren dotrinaren bizkaierazko aldaera agertu zuenean, inkisizioarekin zituen arazoak zirela eta, nahiago izan zuen izenik gabe agertaraztea.

e t o r r i a h a l e a n

Patziku Perurena



## Alternatiba berriez

**H**ala leitzen nion behiala adiskide izandako bati: «Elkarte eta gizarte gehien funtzionamendu egokiaren baldintza funtsezkoa da *gehiengoaren axolagabezia*. Masa gizartea, eginbide nagusiztat kontsumoa duen populazio pasibo eta axolagabe ugarian oinarritzen da. Kontsumorako produktuen egileek publizitate sistema erraldoien bidez populazioaren beharrak eta nahiak antolatzen dituzte, eta kito. Seriean fabrikaturiko produktuak eta publizitatea, bi egiturak bultzaturiko karrera da gaur egungo bizimodua.

Telebistaren arrakasta espektadorearen geldotasunari zor zaio. Albisteen bidez, han eta hemen gertatzen den guziaren berri ematen da, eritzi osatu eta guzi, munduaren balizko imajina antolatuz. Gizakume kontsumistaren aspirazio nagusia kontsumo merkatuko produktuez jabetzea da: telebista programa bat, halako auto modelo berria, liburu arrakastatsua, halako instituzioaren saria, eta abar. Gizajendea geroago eta hutsago dabil, kontsumogaitz beterik, antzinako panpin lastoz beteak bezala.

Masa gizartean demokrazia oso ahula da, ez eror daitekeelako baizik eta demokratikoa ez delako, geroago eta oligarkiagoda da. *Aldeko axolagabezia* da sistemaren sostengua eta espektakuluaren jabe aberatsen gobernu.

Baita HB edo EAKoa ere, ezen zuk igoal usteko duzu Madrid edo Paris aldera begira idatzi zuela artikulu hori nere adiskide ohi zaharrak, baina, ni seguru naiz Iurreta, Lakua, Senpere, Garazi, Luzaide edo Goizueta aldera begira idatzi zuela.

Hala eta guzi, *gehiengo axolagabea* gauzak sinistu gabe eta errezeloz kontsumitzen dituen da; ez hala *gutxiengo axolagabea*, espektakulua seko sinistuz sortzen eta kontsumitzen duena.

Hau da: *intelektual trautzaile alternatibo integral* berria sortu eta kontsumitzen duena. Espezie honetaz, orain berrehun da gehio urte hala idazten zuen Jusef Egiategi zuberotarrak *Filosofo Huskaldunaren Ekheia* liburuan, hain zuen, *axolkabiaz* ari zela: «Zonbat dirade orai gizonetan beren anderiak beno maifiatiago diradianak basa filosofo haren eskolala doatzenak ta bertze arrankurarik estienak salbu beren khorpitzanak, dütielarik mardoki ta beilloki errekeitatzen, odeli güziak megopiatik akasatzen, gogamen arhinak hen lekhian jarten ta gozalde güzietan Igerika bizitzia igaraiten dienik halarik filosofia haren kastak egünkal dialarik noblezia khozatzen, beldür niz aitoren seme güziak anderetürük kotak baizik mentsik eztütükiela sarri».

Eta nor da *gutxiengo axolagabe* hau? Ez derrior, Fernando Sabater, Joxe Azurmendi, edo halako ere. *Ez ez, gutxiengo intelektuala* da, ba, nolabait esan, gizarteko alor guzietan gure herriska bixion arima pixarra pozoiztera sartu den azken funtzionari berria, eta honen esanera erne eta sinesbera jarri den herriskotako jendaje ikasi informatua; hain da gainera ikasia eta informatua, non pentsatzeko lekuri eta betarik gabe gelditu zaion burua. Eta halare, bururik argiena berak duela uste.

Ezker abertzale guzien inguruko kontsumitzaile alternatibo honekin oso ongi konpontzen den funtzionari tipoa izaten da gainera, normalean goizetik Diputacioan edo, Cajan edo, gozo eseri erdaraz, eta iluntzean herriko plazan haserre zutitzen dena euskaraz; eta noski, *logos* guziak eskaifiolez jantzi, eta alternatiba berezia kontsumitzera behartuko zaitu, eta bestela *karka* zarella esanez sinalatu, eta deustaz pentsatzeko betarik hartu baduzu, *faszista fatxa* erantzun, eta kito, egina dauka iraultza; eta euskal labelik kotizatuena duzu.

Ziria

• Motxorrosolo •

## Maria

**H**oberena ZANGOTZAKOA. BERDE GINEN GARAIOK LEOA. LEGARIAKOAK Amikuzekoaren ospea lortu zuen jada. Kalamua reggae bezain beste hedatu zen Bortzirietan barna. Irati Bardeen pare, maria kontuetan Nafarroa bakarria baita, zenbaiten idurikoz, aparta, Zaharrek ligarza erretzen erakutsi ziguten, haiantzat mitxoletak gordez. Estraineko urratsa egina da, Baztangoa ez da ukazio gisa hartu behar, errealitateak agintzen du. Baztango maria, Baztan izan nintzen.



# Silvia Etxandi

☉ Margolaria

## «Artelan pornografikoaren eta erotikoaren arteko muga norberaren buruan dago»

**Sex Haizegoak pintura erotikoari buruz antolatu duen erakusketan erakutsi du bere lana Silvia Etxandi iruindarrak. Beste hogeita**

**hamasei lanekin batera ikus daiteke hilaren 27ra arte Aitzoingo Artsaia aretoan. Lan erotikoak bere margoen oinarria ez diren arren, gustuko ditu. Dena den, ideiak eta koloreak ongi islatzea du helburu.**



LUIS AZARVA

### soslaia

Silvia Etxandik 43 urte ditu eta 20 urte baino gehiago daramatza margotzen. Lehen erakusketa Euskadiko Aurrezki Kutxak Nafarroako hiriburuan zuen aretoan egin zuen, eta geroztik, Iruñean ez ezik, herrialdeko hainbat herritan, Zangozan eta Tafallan kasu, erakutsi du bere lana. Madrilen ere egin izan ditu taldeka.

Egun, margotu besterik ez du egiten. Nolanahi ere, margolariak dioenez, inoiz ez du jakin behar zen garaian behar zen tokian egoten eta, horregatik, egin dituen erakusketek ez dute oihartzunik izan. Beraz, eguneroko ogia margotzen lortzea ezinezkoa dela uste du. «Ezezaguna naiz, ez urte gutxi daramadalako, oraindik ez nautelako deskubritu baizik», dio irribarretsu.

Etorkizunari begira Miarrizteko galeria batekin harremanetan dabil, han erakusketa bat egiteko. Bestalde, Iruñetik kanpoko galeriak begiratzen hasi behar omen du. Bien bitartean, pintatzen eta hain gustuko dituen altzari zaharrak zaharberritzen jarraituko du. Gainera, eskultura lanak egiten hasteko ideia ere badabilkio buruan.

ak, gauza batek bestea dakar. Kolore indartsuak erabiltzen hasten bazara jarraitu egin behar duzu. Hor daude, present, eta gauzen intentsitatea islatzen dute. Gainera, ez zaizkit motelak ateratzen. Beti biziak erabili ditut, barruan dudan zerbait da. Dena den, jakin badakit gehienei ez zaizkiela kolore fuerteak atsegin eta atzera egiten dutela lanok ikustean. Egun kolore motelagoak gehiago erabiltzen diren arren, besteak ere hor daude eta erabili egin behar dira.

#### ■ Badira kolore batzuk besteak baino erotikoagoak?

Gorriek badute indarra emateko joera, baina erotikoagoa edo ez izatea bakoitzaren sententzioen arabera da. Gorriak beti pasioa eragiten du. Lan gehienetan sartzen dut, obrak hala eskatzen didalako. Lanaren indarra bukatu gabea legoke ez banu gorria sartuko.

Badira beste kolore batzuk ere, baina nik ez dut horrekin jokatzeko, berdindit. Finean, lanak bete egin behar zaitu eta kito.

#### ■ Maiz esaten da erakusketak ez direla garrantzitsuak han ikusten denagatik, baizik eta bakoitzak ateratzen dituen ondorioengatik. Zein ondorio atera beharko litzuzke zure lana ikustera doanak?

Erakusketan jarri dudana *Por que si* izena daraman lana da. Emakume baten biluzia da. Emetasunaren baieztatzea da. Zirrara sortzen du eta askori ez zaie gustatu bortitzegia dela uste dutelako. Baina, nire ustez, emakume bat besterik ez da.

#### ■ Orduan, artelanean non dago pornografia eta erotikoaren arteko muga?

Ez dakit. Sexuari buruz dugun ideia aintzat hartzen badugu, genitalak... irudikatzen badituzu artelanak pornografiaren itxura hartzen duela diote. Baina ez nuke jakinen, oso zaila da muga non dagoen esatea. Nire ustez muga beste buruan dago. Dena den, niri berdindit lore bat edo norbaiten larruazala margotzea. Garrantzitsua ez da pintatzen ari zarena, margotzen duzunarekin esaten duzuna baizik.

#### ■ Arte erotikoaren inguruan Iruñean egiten den lehen lehiaketa eta lehen erakusketa da. Zer iruditu zaizu ideia?

Askoz gehiago egin beharko lirateke. Iruñea hilik dago, hilerria dirudi. Estudioan sartzen zara eta ez duzu katuarekin ere hitz egiten. Margoaren mundua nazkagarria bilakatzen ari da. Lehen askoz komunikazio gehiago geneukan. Baina nork egin behar dituen da betiko galdera. Erakusketak egiten dira zu zeu gustura sentituzeko eta zure lana ezagutzera emateko, eta gaur egun ez dago horrelakorik.

#### ■ Zein ideia hartzen dituzu lan egiteko?

Denetarik. Hartu ditut haurtzaroko oroitzapenak eta sententzioak, ametsak. Finean, inspirazioa ematen dizuten gaiak, zure buruan dituzun ideiak edo jendeak ematen dizkizunak. Garai batean asko interesatzen zitzaidan gizakiaren gorputza. Orain, batez ere, gustuko dudana natura da. Naturak dena esaten dizu. Nahi duzun guztia aurkitzen da hor eta egin behar duzun bakarrik hortik ateratzea da. Askotan hitzek gauzak desitxuratu egiten dituzte eta horregatik dut gustuko pintatzea, hitzak arriskutsuak direlako.

#### ■ Zergatik erabiltzen dituzu hain kolore biziak?

Beti gustatu izan zaizkit kolore-

→ Irene Arrizurieta



## BEKARIO!

patxi@earthling.net



## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Napar Irlanda

**H**AN EZ DUTE AIRE AIRE JASAN BEHAR izaten, hemen bai. Han futbol selekzio propioa dute, hemen ez. Han ez dute kalimotxo eta patxanaren kultura ezagutzen, hemen bai. Han euren errealitate gordina Hollywoodeko pelikula arrakastatsuen bitartez ezagutzera eman dute, hemen ez. Eta abar.

Datuok ikusita (gure) politikariek eta besteek egin duten arrazoiketak erabat logikoa ematen du, ondorio gardenekoa: Irlanda eta Euskal Herriaren arteko berdintasunaren arrastorik ez, are gutxiago balizko konponbiderik aipatzen bada. Haiek izan dira urteotan euskaldunak mundu osoko herri eta tribuekin alderatu dituztenak, Historiaren haizeek agintzen zutenaren arabera: albaniar barazkijaleak izan gara herrialde hori itxikeriaren erdutzat hartzen zenean, serbiarrak izan gara garbiketa etnikoa eta nazionalismoaren gehiegikeria alpatzen zen bakoitzean, aljeriarrak fanatismoaz hitz egiten zenean, palestinarrek izan gara Israelgo herritarren odola isuri den bakoitzean...

Antzeko hamaika konparazio bota dituzte lasaitasun osoz munduan eta Historiaren parekorik ez duten horiek, baina orain erabaki dute ezin dugula irlandarrak izan (garai batean bai, nork hitz egiten zuen bada Euskal Herria *ulsterizatze*ko zegoen arriskuaz?). Europarrak, bai, inori galdetu gabe europarrak gara.

Errazegia litzateke (hori bai, krunderkeria puntu bat erabiliz) bestelako konparazioak egiten hastea, baina ez du merezi. Dena den, krudelkeria erabat alboratzea lortu ez dudanez, (hala dio behintzat nire psikologoak), azkenengo ezberdintasun bat: han ez du Charlot klonatzeke egin zituzten esperimentuetatik ihes egindako *replikante* batek agintzen, hemen (mapetako marretatik behera) bai.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Lesaka:** Marruma taldea ariko da gaur Arrano Elkartearen 22:00etan.
- **Bera:** Larrua Truk taldeak kontzertua eskainiko du Espiribaita elkartearen bihar, 23:00etan.
- **Barañain:** Ciudad Realeko Kontserbatorioko Musika Bandak kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan Santa Maria elizan.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Ateneoak antolatuta *Looking for Richard* filma ikusteko aukera dago datorren asteartean, 20:00etan, Olite zinematokian.
- **Tafalla:** Cinema Españolen *De jungla a jungla* filma eskainiko da bihar eta etzi 18:00etan.

### ERAKUSKETAK

- **Lizarrak:** Lizarrako III Biurteko margo lehiaketako lanak ikusteko aukera dago Gustavo de Maeztu museoan.
- **Iruñea:** Zapateria 40 aretoan *Espejismos*, Espainiako argazkigintza garaikidea biltzen duen erakusketa, maiatzaren 10era arte dago zabalik.
- **Iruñea:** San Anton galerian Javier Noguerolen margoak ikusteko aukera dago apirilaren 21a arte..

### BESTELAKOAK

- **Zizur Nagusia:** Donejakue Bideko krosa egingen da etzi 10:00etatik aurrera. Lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago arte eman ahal iza-

nen da izena, eta 500 kostatuko da.

- **Iruñea:** 'Iberioko dinosaurusak' hitzaldia eskainiko du Jose Luis Sanz Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Biologia irakasleak, datorren asteazkenean, 20:00etan, Planetarioan.
- **Iruñea:** Euskara Ipar Euskal Herrian hitzaldia eskainiko dute Zaldiko Maldikon Teresa Lekunberrik (EKE) eta Iñantza Ostolazak (EHE) asteartean, 20:00etan.

► **Iruñea:** Joan Hernandez Pijuanek *Tiempo de pintura* hitzaldia eskainiko du datorren asteartean, 20:00etan, Iruñeko Kutxan.

► **Iruñea:** Alde Zaharreko auzo elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu: saloi dantzak, argazkilaritza, masajea, yoga, eskulanak, pintura eta marrazkiak, *aerobic*-a, ehoziri lana eta josteta. Izena eman nahi duenak ondoko telefonora deitu behar du: 21-25-26.

► **Iruñea:** Alde Zaharreko auzo elkarteak IV. Binakako Pilota Txapelketa antolatu du. Parte hartu ahal izanen dute helduek zein haurrek. Izena emateko elkartera jo behar da -Aldapa kalea, 5 behe-edo 21-25-26 telefonora deitu. Izena emateko epea apirilaren 27an bukatuko da.

► **Zizur Nagusia:** Jose Alzatek ari-keta fisikoaren oinarriko alderdiei buruzko hitzaldia eskainiko du bihar, 17:30etan Kultur Etxean.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini.....

# Nineunerau

Ugalkortasuna eragozteko  
 eragotzea  
 pekatu larria da.  
 Piztea eta sustatzea oraino ez.

11 bitartira  
 5 mineral  
 3 oligoelementu  
 2 berpistaila  
 14 KONPRIMATU  
 EFEBESZENTE

Nineunerau

Zut

Oso katolikoa sentitzen ez zarenerako

